PROPOSAMENAK AURKEZTEA: Korporazio honetako erregistro nagusian, hamahiru egunetan, Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Proposamenak bulegoko egun eta ordu baliodunetan aurkeztu beharko dira, epea amaitzen den eguneko 14:00ak arte.

GUTUNAZALAK IREKITZEA: Elciegoko Udaletxeko bilkura gelan, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo eguneko 13:30ean.

PROPOSAMEN EREDUA: Lehiaketa honetan parte hartzeko proposamenak testu honen araberakoak izan behar dira: Izen-abizenak: ……………………....... Adina: ………… Egoera zibila: ……………. Helbidea: …………….....………… Lanbidea: ………………..........… Nortasun agiriko zenbakia: …....……….. Jaun edo andre honek, bere izenean, eta Ebro ibaiaren ibaiertzeko lurren soiltze intentsiborako eta prestaketarako eta ondoren zuhaitz-espezie egokiak birlandatzeko oinarri izango den ekonomia eta administrazio baldintzen berri duela, deitutako lehiaketarako eskaintza aurkezten du. Kopuru hau eskaintzen du: ...................................... euro (letraz eta zenbakiz idatzi kopurua), aipatutako lanak egiteko.

Dagozkion ondorioetarako, Toki Korporazioetako Kontratazioari buruzko Araudiko 4 eta 5. artikuluetan jasotako ezintasunik eta bateraezintasunik ez duela adierazten du. (Tokia, data eta izenpea)

AGIRIAK: Eskaintzaileek baldintzetan eskatzen diren agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

Hori guztia argitara ematen da guztiek jakin dezaten. Elciegon, 2002ko uztailaren 30ean.– Alkatea, RAFAEL-CRUZ SÁENZ CASTRO.

PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES: En el Registro general de esta Corporación durante el plazo de trece días naturales, contados a partir del siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio histórico de Álava en días y horas hábiles de oficina y hasta las catorce horas del día en que finalice este plazo.

APERTURA DE PLICAS: En el Salón de sesiones de la Casa Consistorial de Elciego a las trece treinta horas del día hábil siguiente al de finalización del plazo de presentación de proposiciones.

MODELO DE PROPOSICIÓN: Las proposiciones para tomar parte en este Concurso se ajustarán al siguiente texto: Don .............. de ..... años de edad, estado ............... con domicilio en .................. calle ................ número ......., de profesión ................... y con D.N.I. número ........... en nombre propio y enterado del Pliego de Condiciones Económico-Administrativas que servirá de base para el aclareo intensivo, preparación de los terrenos y posterior replantación con especies arbóreas adecuadas de la Ribera del Ebro opta a la licitación del concurso convocado y en su consecuencia ofrece la cantidad de .......... euros (en letra y número), por la realización de los trabajos expresados.

A los efectos procedentes, declara no hallarse incurso en ninguna de las causas de incapacidad e incompatibilidad contemplados en los artículos 4 y 5 del Reglamento de Contratación de las Corporaciones Locales. (Lugar, fecha y firma)

DOCUMENTACIÓN: Los licitadores habrán de presentar toda la documentación requerida en el mencionado Pliego de condiciones.

Lo que se hace público para general conocimiento, en Elciego a 30 de julio de 2002.– El Alcalde, RAFAEL-CRUZ SÁENZ CASTRO.

## IEKORA

**5.036**

**Iragarkia**

**Zerga Ordenantzak behin betiko onartzea.**

Iekorako udalbatzak, 2002ko maiatzaren 31n egindako bileran, honako Zerga Ordenantza hauek behin behinean onartzea erabaki zuen, aurrekoak indargabetuz:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.

- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.

- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.

- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.

- Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza

- Udal jabari publikoaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela eta ezarri beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza.

Erabaki horren iragarkia 2002ko ekainaren 17an argitaratu zen Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean, 68 alean, eta jendaurrean egon zen hogeita hamar egunetan zehar ez zenez inolako erreklamaziorik aurkeztu, indarrean dagoen araudiaren arabera, behin betikotzat jo da erabakia eta Zerga Ordenantza berrien testu osoa argitaratzen da.

**Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eskatuko du Udalak, ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua.- Ordenantza udalerri osoan ezarriko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.- Udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzeak osatuko du zergagaia, jarduera horiek lokal zehatz batean egin edo ez egin eta zergaren tarifetan zehaztuak egon edo ez egon.

## YECORA

**5.036**

**Anuncio**

**Aprobación definitiva de las nuevas Ordenanzas Fiscales.**

El Ayuntamiento-Pleno de Yécora, en sesión celebrada el día 31 de mayo de 2002, acordó aprobar, provisional, las siguientes nuevas Ordenanzas Fiscales, derogando las anteriores:

- Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto de Actividades Económicas.

- Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

- Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

- Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

- Ordenanza fiscal Reguladora de la Tasa por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

- Ordenanza fiscal Reguladora de la Tasa por la utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público municipal.

Considerando que el anuncio relativo a dicho acuerdo fue publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava número 68, de 17 de junio de 2002, abriéndose un plazo de exposición pública de treinta días para la presentación de reclamaciones sin que se haya formulado reclamación alguna, de conformidad con la legislación vigente, se eleva a definitivo dicho acuerdo, con la publicación del texto íntegro de las nuevas Ordenanzas Fiscales.

**Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto de Actividades Económicas.**

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava y en la Norma Foral particular del tributo, exige el Impuesto sobre actividades económicas con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen la tarifa aplicable y el período de recaudación.

Artículo 2.- La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.- Constituye el hecho imponible del Impuesto el mero ejercicio en el término municipal de actividades empresariales, profesionales o artísticas, se ejerzan o no en local determinado y se hallen o no especificadas en las Tarifas del impuesto.

Zerga honen ondorioetarako, honakoak izango dira enpresa jarduera: abeltzaintza (izaera independientea duenean), meatze, industria, merkataritza eta zerbitzu-jarduerak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten menpeko abeltzaintza, basokoak eta arrantza, beraz, horiei ez zaie zerga ezarri behar.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoaren ondorioetarako, abeltzaintza independientetzat joko da segidako kasuotan sartuta dagoen abere-multzoa:

a) Abeltzainak nekazaritza edo baso-ustiapenerako erabiltzen ez dituen lurretan batez ere bazkatzen duten abereak.

b) Nekazaritza funtsetatik kanpo estabulatutakoak.

c) Transhumantzian dabilena.

d) Gehien bat hazten ari den funtsekoak ez diren pentsuez elikatzen den aberea.

4. artikulua.

1.- Jarduera batek izaera enpresariala, profesionala edo artistikoa izango du produkzio-bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenean, ondasunen edo zerbitzuen produkzio edo banaketan parte hartzeko asmoz.

2.- Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

5. artikulua.- Zergapetutako jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

6. artikulua.- Ez du zergagaia osatuko honako jarduera hauek egiteak:

1.- Nekazaritza, abeltzaintza dependientea, basokoak eta arrantzakoak.

2.- Enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek ibilgetu izaeraz gutxienez aldatu baino bi urte lehenagotik agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek denbora-epe berean erabili izan baditu.

3.- Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.

4.- Esklusiboki establezimenduaren dekorazio eta apainketarako gaien erakusketa; bezeroei opariak egiteko gaien erakusketa, ordea, zergari lotuko zaio.

5.-Txikizkako salmentan, egintza bakarra burutzea eta eragiketa bakana denean.

III. SALBUESPENAK

7. artikulua.

1.- Honakoak salbuetsiko dira zergatik:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta Udal Entitateak, eta dagozkien erakunde autonomo administratiboak.

b) Nazioarteko Itun edo Hitzarmenak direla eta salbuespena aplika dakiekeen subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantza, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat eratutakoak.

d) Ikerketa-erakunde publikoak; irakaskuntza-establezimenduak (maila guztietan), osorik Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Toki Entitateen funtsez ordaintzen badira, edo ongintzazkotzat edo erabilgarritasun publikokotzat jotako Fundazioen kontura; irabazteko xederik ez duten irakaskuntza-establezimenduak (maila guztietan), hezkuntza itunaren erregimen pean badaude, nahiz eta ikasleei liburuak edo idazmahiko artikuluak eskuratu edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eman edo, salbuespen gisa, establezimenduan bertan saldu irakaskuntza horretara zuzendutako tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa (partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) esklusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

e) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irabazte xederik gabeak, minusbaliatuak irakatsi, hezi, birgaitu eta zaintzeko burutzen dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerak direla eta, nahiz eta horretara egokitutako tailerretako

Se consideran, a los efectos de este impuesto, actividades empresariales las ganaderas, cuando tengan carácter independiente, las mineras, industriales, comerciales y de servicios. No tienen, por consiguiente, tal consideración las actividades agrícolas, las ganaderas dependientes, las forestales y las pesqueras, no constituyendo hecho imponible por el impuesto ninguna de ellas.

A efectos de lo previsto en el párrafo anterior, tendrá la consideración de ganadería independiente, el conjunto de cabezas de ganado que se encuentre comprendido en alguno de los casos siguientes:

a) Que paste o se alimente fundamentalmente en tierras que no sean explotadas agrícola o forestalmente por el dueño del ganado.

b) El estabulado fuera de las fincas rústicas.

c) El trashumante o trasterminante.

d) Aquél que se alimente fundamentalmente con piensos no producidos en la finca en que se críe.

Artículo 4.

1.- Se considera que una actividad se ejerce con carácter empresarial, profesional o artístico, cuando suponga la ordenación, por cuenta propia, de medios de producción y de recursos humanos o de uno de ambos, con la finalidad de intervenir en la producción o distribución de bienes o servicios.

2.- El contenido de las actividades gravadas se definirá en las Tarifas del impuesto.

Artículo 5.- El ejercicio de las actividades gravadas se probará por cualquier medio admisible en derecho y, en particular, por los contemplados en el artículo 3 del Código de Comercio.

Artículo 6.- No constituye hecho imponible en este impuesto el ejercicio de las siguientes actividades:

1.- Las agrícolas, las ganaderas dependientes, las forestales y las pesqueras.

2.- La enajenación de bienes integrados en el activo fijo de las Empresas que hubieran figurado debidamente inventariados como tal inmovilizado con más de dos años de antelación a la fecha de transigirse, y la venta de bienes de uso particular y privado del vendedor siempre que los hubiese utilizado durante igual período de tiempo.

3.- La venta de los productos que se reciben en pago de trabajos personales o servicios profesionales.

4.- La exposición de artículos con el fin exclusivo de decoración o adorno del establecimiento. Por el contrario, estará sujeta al impuesto la exposición de artículos para regalo a los clientes.

5.- Cuando se trate de venta al por menor, la realización de un solo acto y operación aislada.

III. EXENCIONES

Artículo 7.

1.- Están exentos del impuesto:

a) El Estado, la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y las Entidades Municipales, así como sus respectivos Organismos autónomos de carácter administrativo.

b) Los sujetos pasivos a los que les sea de aplicación la exención en virtud de Tratados o de Convenios Internacionales.

c) Las Entidades gestoras de la Seguridad Social y de Mutualidades y Montepíos constituidos conforme a lo previsto en la legislación vigente.

d) Los organismos públicos de investigación, los establecimientos de enseñanza en todos sus grados costeados íntegramente con fondos del Estado, de la Comunidades Autónomas, o de las Entidades Locales, o por fundaciones declaradas benéficas o de utilidad pública, y los establecimientos de enseñanza en todos sus grados que, careciendo de ánimo de lucro, estuvieren en régimen de concierto educativo, incluso si facilitasen a sus alumnos libros o artículos de escritorio o les prestasen los servicios de media pensión o internado y aunque por excepción vendan en el mismo establecimiento los productos de los talleres dedicados a dicha enseñanza, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine, exclusivamente, a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

e) Las Asociaciones y Fundaciones de disminuidos físicos, psíquicos y sensoriales, sin ánimo de lucro, por las actividades de carácter pedagógico, científico, asistencial y de empleo que para la enseñanza, educación, rehabilitación y tutela de minusválidos realicen,

produktuak saldu, baldin eta salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) esklusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua mantentzeko bideratzen bada.

f) Gurutze Gorriaren eta antzeko entitateen ondasunak; arautegian zehaztuko da zein diren horiek.

2.- Aurreko paragrafoko d) eta e) idatz-zatietan araututako onurek erregu-izaera izango dute eta egoki denean emango dira, alderdiak hala eskatuz gero.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

8. artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluak aipatzen dituen Entitateak, udalerrian zergagaia eratzen duten jardueretako edozein egiten badute.

9. artikulua.- Zergaren kuota zehazteko, zergagaian sartutako jarduerei zergaren tarifak ezarriko zaizkie (573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onartutakoak) eta, hala badagokio, ordenantza honen eranskinean ageri diren koefizienteak eta indizea.

V. EZARPENALDIA ETA SORTZAPENA

10. artikulua.

1.- Ezarpenaldia urte naturalarekin bat dator, alta-aitorpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, ezarpenaldia jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da. Horrek ez du eragotziko artikulu honetako 3. zenbakian xedatutakoa ezartzea.

2. Zerga ezarpenaldiaren lehen egunean sortuko da eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta-aitorpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31 bitarteko egunkopuruaren arabera proportzionalki kalkulatuko da.

3.- Baja-aitorpenen kasuetan, ezarpenaldia urtarrilaren batetik baja-aitorpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zerga ezarpenaldiaren lehen egunean sortuko da eta kuota urtarrilaren batetik baja-aitorpenaren egunera arte dauden hileen arabera proportzionalki kalkulatuko da.

Aurreko lerroaldean aipatutako hilabeteen kopurua kalkulatzeko, baja-aitorpena aurkezten den hila osoa balitz bezala zenbatuko da.

Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko jarduera hasten den egunetik baja-aitorpena egiten den eguneraino 12 hilabete igaro ez badira. Horrelakoetan, baja-ematearen eguna jarduera hasiz geroztik baja-aitorpena aurkezten den urteko abenduaren 31ra pasako da.

4.- Ikuskizunei dagokienez, kuotak saio bakanen arabera ezarritakoak direnean, sortzapena saio bakoitzeko sortuko da, eta egoki diren aitorpenak aurkeztu beharko dira arauek ezarritakoari jarraiki.

VI. KUDEAKETA

11. artikulua.

1.- Zerga Matrikula bidez kudeatuko da. Aipatu matrikula urtero egingo da eta bertan jarduera ekonomikoak, subjektu pasiboak, zergazorrak, eta, hala badagokio, Foru Gainordaina barnean hartuko dituzten erroldak sartuko dira. Matrikula jendearen eskura izango da.

2. Subjektu pasiboek egoki diren alta-aitorpenak aurkezteko obligazioa izango dute, eta matrikulan sartzeko beharrezkoak diren elementu guztiak adieraziko dituzte, jarduera hasi aurreko hamar egun baliodunetan, Arabako Foru Aldundiak onartutako ereduaz baliatuz; jarraian, Administrazio aginpidedunak dagokion likidazioa egin eta subjektu pasiboari adieraziko zaio, zeinak dagokion diru-sarrera egin beharko duen.

Halaber, subjektu pasiboek zergapetutako jardueretan sortzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoak adierazteko obligazioa izango dute, baldin eta zerga honen ordainketarako garrantzirik badute, arauen bidez ezarriko diren epe eta terminoetan.

3.- Erroldetako datuak sartu, kendu edo aldatzea, zerga-ikuskatze jarduketen edo alta-emate eta komunikazioen formalizazioaren ondorio direnak, administrazio-egintzatzat joko dira eta errolda-

aunque vendan los productos de los talleres dedicados a dichos fines, siempre que el importe de dicha venta, sin utilidad para ningún particular o tercera persona, se destine exclusivamente a la adquisición de materias primas o al sostenimiento del establecimiento.

f) La Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

2.- Los beneficios regulados en las letras d) y e) del apartado anterior tendrán carácter rogado y se concederán, cuando proceda, a instancia de parte.

IV. SUJETO PASIVO

Artículo 8.- Son sujetos pasivos de este impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria de Álava siempre que realicen en el término municipal cualquiera de las actividades que originan el hecho imponible.

Artículo 9.- La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a las actividades incluidas en el hecho imponible las Tarifas del Impuesto aprobadas por el Decreto Foral Normativo 573/1991, y, en su caso, el coeficiente o coeficientes y el índice que figuran en el Anexo de esta Ordenanza.

V. PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

Artículo 10.

1.- El período impositivo coincide con el año natural, excepto cuando se trate de declaraciones de alta, en cuyo caso abarcará desde la fecha de comienzo de la actividad hasta el final del año natural, sin perjuicio de lo dispuesto en el número 3 de este artículo.

2.- El impuesto se devenga el primer día del período impositivo y las cuotas serán irreducibles, salvo cuando, en los casos de declaración de alta, el día de comienzo de la actividad no coincida con el año natural, en cuyo supuesto las cuotas se calcularán proporcionalmente al número de días existentes entre la fecha de comienzo de la actividad y el 31 de diciembre.

3.- En el caso de declaraciones de baja, el período impositivo se extenderá desde el uno de enero hasta la fecha en que se presente la declaración de baja. En este supuesto el impuesto se devenga el primer día del período impositivo y la cuota se calculará de forma proporcional al número de meses existentes entre el uno de enero y la fecha de presentación de la declaración de baja.

A efectos del cómputo del número de meses, a que se refiere el párrafo anterior, se contará como entero el mes en que se produzca la presentación de la declaración de baja.

Lo dispuesto en este número no será de aplicación si entre la fecha de inicio de la actividad y la de declaración de baja no han transcurrido 12 meses. En este caso se trasladará la fecha de baja al día 31 de diciembre del año en que se presente la declaración de baja.

4.- Tratándose de espectáculos, cuando las cuotas estén establecidas por actuaciones aisladas, el devengo se produce por la realización de cada una de ellas, debiéndose presentar las correspondientes declaraciones en la forma que se establezca reglamentariamente.

VI. GESTIÓN

Artículo 11.

1.- El Impuesto se gestiona a partir de la Matrícula del mismo. Dicha matrícula se formará anualmente y estará constituida por censos comprensivos de las actividades económicas, sujetos pasivos, deudas tributarias, y, en su caso, del Recargo Foral. La Matrícula estará a disposición del público.

2.- Los sujetos pasivos estarán obligados a presentar las correspondientes declaraciones de alta manifestando todos los elementos necesarios para su inclusión en la matrícula en los términos del número anterior y dentro del plazo que reglamentariamente se establezca, practicándose a continuación por la Administración competente la liquidación correspondiente, la cual se notificará al sujeto pasivo, quien deberá efectuar el ingreso que proceda.

Asimismo los sujetos pasivos estarán obligados a comunicar las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en el ejercicio de las actividades gravadas y que tengan trascendencia a efectos de su tributación por este impuesto, formalizándolas en los plazos y términos que reglamentariamente se establezcan.

3.- La inclusión, exclusión o alteración de los datos contenidos en los censos, resultantes de las actuaciones de inspección tributaria o de la formalización de altas y comunicaciones, se considerarán

ren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan erroldetako datuekin lotuta dagoen edozein aldaketa egiteko, aldez aurretik erroldako datuak aldatu beharko dira ezinbestez.

4.- Zerga hau autolikidazioaren bidez egiteko eskatu ahal izango da, arauen bidez ezarriko diren terminoetan.

12. artikulua.

1.- Udal honek ditu kudeaketa, likidazio, ikuskatze eta bilketa ahalmenak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidean.

2. Udalaren aginpidea izango da, halaber, matrikula jendaurrean jartzea, errekurtso eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3.- Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik Foru Aldundiak txosten teknikoa egin behar du, eta ondoren, emandako ebazpenaren berri ere eman beharko zaio.

13. artikulua.- Jardueren kalifikazioen eta kuoten zehaztapenaren aurka aurkeztutako errekurtso eta erreklamazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 152. artikulutik 163.era bitartekoetan xedatutakoari jarraiki eraenduko dira, eta Arabako Foru Aldundia izango da berraztertzeko errekurtsoa ebazteko organo eskuduna. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazi beharra eragotziko.

14. artikulua.

1.- Udal bakoitzari dagozkion matrikulak Foru Aldundiak egingo ditu eta ondoren haiei bidaliko dizkie.

2.- Foru Aldundiak landutako Matrikula jasotakoan, jendaurrean erakutsiko da hamabost eguneko epean, zergadunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

15. artikulua.

1.- Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari emaitzaren egiaztagiria bidaliko zaio, hark onar dezan.

VII. HOBARIAK

16. artikulua- Zergaren kuotan %50eko hobaria izango dute jarduera udalerrian daukaten Nekazaritza Kooperatibek.

AZKEN XEDAPENA

Bai ordenantza bai eranskina 2003ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

**Eranskina**

Lehen araua.

Zergaren kuota zehazteko, zergagaian sartutako jarduerei zergaren tarifak ezarriko zaizkie, uztailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuaz onartutakoak, horiek ezartzeko xedapen beraren bidez onartutako jarraibideekin bat etorriz.

Bigarren araua.- Koefizientea.

Uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, udalerri honetan ezar daitekeen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren koefizientea hurrengo arauan adierazitako moduan zehaztuko da.

Hirugarren araua.

Udalerri honetan gauzatzen diren jarduera guztietarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen gutxieneko kuotei 1 koefizientea gehituko zaie.

Laugarren araua.- Indizeak: ez da indizerik zehaztu.

Bosgarren araua.- Ordaintzeko aldia: urtero.

**Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.**

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga eskatuko du Udalak, ordenantza

acto administrativo, y conllevarán la modificación del censo. Cualquier modificación de la Matrícula que se refiera a datos obrantes en los censos requerirá, inexcusablemente, la previa alteración de estos últimos en el mismo sentido.

4.- Este impuesto podrá exigirse en régimen de autoliquidación en los términos que reglamentariamente se establezcan.

Artículo 12.

1.- Las facultades de gestión, liquidación, inspección y recaudación, tanto en período voluntario como por la vía de apremio, corresponde a este Ayuntamiento.

2.- En materia de su competencia, le corresponde la exposición al público de la matrícula, resolución de recursos y reclamaciones, cobranza del impuesto, aplicación de exenciones y bonificaciones y actuaciones para la asistencia e información al contribuyente referidas a las materias de este impuesto.

3.- La concesión y denegación de exenciones requerirá, en todo caso, informe técnico previo de la Diputación Foral, con posterior traslado a ésta de la resolución que se adopte.

Artículo 13.- Los recursos y reclamaciones que se interpongan contra los actos de calificación de actividades y señalamiento de cuotas se regirán por lo dispuesto en los artículos 152 a 163 de la Norma Foral General Tributaria de Álava, siendo el órgano competente para resolver el recurso de reposición la Diputación Foral de Álava. La interposición de estas reclamaciones no suspenderá la ejecutoriedad de los actos.

Artículo 14.

1.- Las Matrículas correspondientes a cada Ayuntamiento se confeccionarán por la Diputación Foral que las remitirá a éstos.

2.- Una recibida la Matrícula confeccionada por la Diputación Foral, se expondrá al público, por un término de quince días para que los contribuyentes afectados puedan examinarlas y formular, en su caso, las reclamaciones que consideren oportunas.

Artículo 15.

1.- Concluido el plazo de exposición al público y resueltas las reclamaciones, se remitirá a la Diputación Foral de Álava la certificación del resultado de la misma para su aprobación.

VII. BONIFICACIONES

Artículo 16.- Gozarán de una bonificación del 50% en la cuota del impuesto las Cooperativas Agrarias que desarrollen su actividad económica en el municipio.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza fiscal, así como el Anexo entrará en vigor el día 1 de enero del 2003, permaneciendo en vigor hasta que se acuerde su modificación o derogación expresas.

**Anexo**

Regla Primera.

La cuota tributaria será la resultante de aplicar a las actividades incluidas en el Hecho Imponible las Tarifas del Impuesto aprobadas por el Decreto Foral Normativo 573/1991, del Consejo de Diputados, de 23 de julio, de conformidad con la Instrucción para la aplicación de las misas aprobada por la misma disposición.

Regla Segunda.- Coeficiente.

De conformidad con lo previsto en el artículo 10 de la Norma Foral 43/1989, de 19 de julio, el coeficiente del Impuesto sobre Actividades Económicas aplicable en este Municipio queda fijado en los términos de la regla siguiente.

Regla Tercera.

Para todas las actividades ejercidas en este término municipal, las cuotas mínimas de las Tarifas del Impuesto sobre Actividades Económicas serán incrementadas mediante la aplicación sobre las mismas del coeficiente 1.

Regla Cuarta.- Índices: No se establecen índices.

Regla Quinta.- Período de recaudación: Anual.

**Ordenanza fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.**

I. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.-Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Álava y en la Norma Foral particular del tributo, exige el

honen arabera. Ezarri beharreko tarifak eta ordaintzeko epea jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua.- Ordenantza udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. artikulua.- Honakoek osatuko dute zergagaia:

a) Udalerrian kokatuta dauden eta hiri eta landa izaera duten ondasun higiezinen jabetza.

b) Usufruktu edo azalera eskubide erreal baten titulartasuna.

c) Ondasun higiezinen edo horiei atxikitako zerbitzu publikoen gaineko administrazio-kontzesioaren titulartasuna.

4. artikulua.- Honako hauek joko dira hiri ondasun higiezintzat:

1.- Hiri-lurzorua, arau subsidiarioek urbanizatzeko egoki gisa sailkatu duten lurzorua, lurzoru urbanizagarria edo, estatuko legeetan lurzoru urbanizagarriari aitortutako hirigintza-ahalmen berberak dituelako, autonomiako administrazioak horren baliokidetzat jo duen lurzorua.

Hiri ondasun higiezintzat joko dira, halaber, bide zolatuak edo espaloi zintarridunak dituzten lurzoruak, horretaz gain estolderia, urhornidura, argi-indarraren hornidura eta argiteria publikoa badituzte, eta hiri-izaera duten eraikuntzak kokatuta dauden lurrak.

Era berean, nekazaritza legeetan xedatutakoaren aurka zatikatutako lurrak, zatikapenak lurrak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa-izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

2.- Hiri-izaerako eraikuntzak, honakoak, esaterako:

a) Eraikinak, edozein delarik egiteko erabili den materiala, kokatuta dauden tokia eta lurzoru-mota eta ematen zaion erabilera, nahiz eta eraikitzeko eragatik guztiz eramangarriak izan, eta nahiz eta kokatuta daudeneko lurra ez izan eraikuntzaren jabearena; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritza eta industria instalazioak, adibidez, dikeak, tankeak eta zamatze-tokiak.

b) Urbanizazio eta hobekuntza-obrak, lur-berdinketak esaterako, eta espazio irekiak erabiltzeko egiten diren obrak. Hor sartzen dira azoka-barrutiak; aire zabaleko depposituak; presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien hondoa barne; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

3.- Ondoko artikuluan landa-izaerako eraikuntza gisa berariaz kalifikatuta ez dauden eraikuntzak.

5. artikulua.- Honako hauek joko dira landa ondasun higiezintzat:

1.- Aurreko artikuluaren 1. puntuan xedatutakoaren arabera hirilurtzat jotzen ez diren lurrak.

2.- Landa-izaera duten eraikuntzak, hau da, nekazaritzarako eraikin edo instalazioak, landa izaerako lurretan kokatuta daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapenen garapenerako.

Zerga honen ondorioetarako ez dira eraikuntzatzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso-ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitzeko erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzea, laboreak babestea, abereak aldi batez gordetzea eraikinik ez dagoen eremuetan, jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzea. Era berean, zerga horretarako ez dira eraikuntzatzat joko landa-izaerako lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereiziezin izango direnak.

III. SALBUESPENAK

6. artikulua.- Honako ondasunei ez zaie zerga ezarriko:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren edo Udal edo Toki Entitateen jabetza diren ondasunak, defentsari, herritarren babesari eta hezkuntza eta presondegi-zerbitzuei zuzenean lotuta badaude; Unibertsitate Publikoen jabetzakoak,

Impuesto sobe bienes Inmuebles con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen la tarifa aplicable y el período de recaudación.

Artículo 2.- La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE

Artículo 3.- Constituye el hecho imponible del Impuesto:

a) La propiedad de los bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica sitos en el término municipal.

b) La titularidad de un derecho real de usufructo o de superficie.

c) La titularidad de una concesión administrativa sobre bienes inmuebles o sobre los servicios públicos a los que estén afectados.

Artículo 4.- Tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza urbana:

1.- El suelo urbano, el declarado apto para urbanizar por las normas subsidiarias, el urbanizable o asimilado por la legislación autonómica por contar con las facultades urbanísticas inherentes al suelo urbanizable en la legislación estatal.

Asimismo tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza urbana los terrenos que dispongan de vías pavimentadas o encintado de aceras y cuenten, además, con alcantarillado, suministro de agua, suministro de energía eléctrica y alumbrado público y los ocupados por construcciones de naturaleza urbana.

Tendrán la misma consideración los terrenos que se fraccionen en contra de lo dispuesto en la legislación agraria siempre que tal fraccionamiento desvirtúe su uso agrario, y sin que ello represente alteración alguna de la naturaleza rústica de los mismos a otros efectos que no sean los del presente impuesto.

2.- Las construcciones de naturaleza urbana, entendiendo como tales:

a) Los edificios sean cualesquiera los elementos de que estén construidos, los lugares en que se hallen emplazados, la clase de suelo en que hayan sido levantados y el uso a que se destinen, aún cuando por la forma de su construcción sean perfectamente transportables, y aún cuando el terreno sobre el que se hallen situados no pertenezca al dueño de la construcción, y las instalaciones comerciales e industriales asimilables a los mismos, tales como diques, tanques y cargaderos.

b) Las obras de urbanización y de mejora, como las explanaciones y las que se realicen para el uso de los espacios descubiertos, considerándose como tales los recintos destinados a mercados, los depósitos al aire libre, las presas, saltos de agua y embalses, incluido el lecho de los mismos, los campos o instalaciones para la práctica del deporte, los muelles, los estacionamientos y los espacios anexos a las construcciones.

3.- Las demás construcciones no calificadas expresamente como de naturaleza rústica en el artículo siguiente.

Artículo 5.- Tendrán la consideración de bienes inmuebles de naturaleza rústica:

1.- Los terrenos que no tengan la consideración de urbanos conforme a lo dispuesto en el número 1 del artículo anterior.

2.- Las construcciones de naturaleza rústica, entendiendo por tales los edificios e instalaciones de carácter agrario que, situados en los terrenos de naturaleza rústica, sean indispensables para el desarrollo de las explotaciones agrícolas, ganaderas o forestales.

En ningún caso tendrán la consideración de construcciones a efectos de este impuesto, los tinglados o cobertizos de pequeña entidad utilizados en explotaciones agrícolas, ganaderas o forestales que, por el carácter ligero y poco duradero de los materiales empleados en su construcción, sólo sirvan para usos tales como el mayor aprovechamiento de la tierra, la protección de los cultivos, albergue temporal de ganados en despoblado o guarda de aperos e instrumentos propios de la actividad a la que sirven y están afectos; tampoco tendrán la consideración de construcciones a efectos de este impuesto las obras y mejoras incorporadas a los terrenos de naturaleza rústica, que formarán parte indisociable del valor de éstos.

III. EXENCIONES

Artículo 6.- Gozarán de exención los siguientes bienes:

a) Los que sean propiedad del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Álava, de la Entidades Municipales o de las Entidades Locales, y estén directamente afectos a la Defensa, seguridad ciudadana y a los servicios educativos y

hezkuntza zerbitzuei zuzenean lotuta badaude; errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

b) Kuadrilla, Udal, Anaiarte eta Administrazio Batzarren jabetzakoak, zerbitzu edo erabilera publikoa badute xede. Hori ez da ezarriko lurrak atxikita dauden ondasun edo zerbitzu publikoa administrazio kontzesio baten pean edo zeharkako kudeaketa beste mota baten pean egonez gero, ez bada horren titularra irabazte-xederik gabeko elkarte bat denean eta aipatu entitateren batekin lankidetzan aritzen denean hartako organo eskudunak udal interesekotzat jo duen jardueraren baterako.

Halaber, salbuetsita geratuko dira mendiak eta gainerako ondasun higiezinak, baldin eta komunitatearen aprobetxamenduren bat bada bertan, eta amankomuneko herri mendiak.

c) Hazkunde geldoa duten espeziez landatutako mendiak, titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan.

Salbuespen hau hazkunde geldoko zuhaitzei dagokie, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren espezie-izendegia kontuan hartuta, horien aprobetxamendu nagusia egurra bada, eta espezie horietaz landatutako mendiaren zatian bakarrik, baldin eta zuhaiztiaren dentsitatea espezieari berez dagokiona bada.

Orobat, aurreko lerrokadan jaso ez diren mendiak, Korporazio, Entitate eta partikularrek baso-berritzerik eginez gero, funtsen zati birlandatuari dagokionez, eta baita Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuei edo plan teknikoei lotutako zuhaiztiak leheneratzeko zatiak. Idatz-zati honetan aurreikusitako salbuespenak hamabost urteko iraupena izango du, horretarako eskabidea egin eta hurrengo zergalditik zenbatzen hasita.

d) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatu espainiarrak eta Vatikanoak sinatutako Akordioan aurreikusitakoaren arabera.

e) Legez ezagutatuko elkarte konfesional ez-katolikoenak, Espainiako Konstituzioaren 16.3 artikuluak aipatzen dituen lankidetza-harremanen arabera, eta dagokion akordioak adierazitako moduan.

f) Gurutze Gorriaren eta horren antzeko Entitateen ondasunak; arauz ezarriko da zein diren horiek.

g) Atzerriko gobernuen ondasunak, ordezkaritza diplomatikoak, kontsuletxeak edo erakunde ofizialak jartzeko erabiliz gero, elkarrekikotasuna izateko baldintzapean edo indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenen arabera.

h) Indarrean dauden Nazioarteko Hitzarmenak direla eta salbuespena aplikatu dakiekeen erakunde edo entitateen ondasunak.

i) Trenbideek okupatutako lurrak eta lur horietan kokatutako eraikinak, trenbideok ustiatzeko behar diren geltokiak, biltokiak edo beste edozein zerbitzu badago bertan.

Ondorioz, ez dira salbuetsiko ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi-establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzetarako erabiltzen diren etxeak, ez Zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

j) Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatiaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hori kultura ondasun kalifikatuei zein inbentariatuei ezarriko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legeak adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera monumentu multzoa den baten barruan sartutako higiezinak ere salbuetsita egongo dira. Baina salbuespen hori ezartzeko, babes bereziko erregimenaren barruan sartzen diren higiezin kalifikatu edo inbentariatuak izan beharko dira, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezarritako baldintzen arabera.

k) Zerga-oinarria 601,01 € baino txikiagoa duten hiri-izaerako ondasunak; baita landa-izaerako ondasunak ere, subjektu pasiboak udalerrian dituen landa ondasun guztiei dagokien zerga-oinarria 1.202,02 € baino txikiagoa denean, edo, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauari jarraiki, aurreko diru-kopuruen mugak eguneratzetik ateratako zenbatekoa baino txikiagoa denean.

penitenciarios. Los que sean propiedad de las Universidades Públicas que estén directamente afectos a los servicios educativos. Asimismo y siempre que sean de aprovechamiento público y gratuito: las carreteras, los caminos y las demás vías terrestres.

b) Los que sean de propiedad de las Cuadrillas, Municipios, Hermandades y Juntas Administrativas, cuyo destino sea el servicio o uso público. Lo dispuesto anteriormente no será de aplicación cuando sobre los bienes o sobre el servicio público al que estén afectados recaiga una concesión administrativa u otra forma de gestión indirecta, a no ser que su titular sea una Asociación sin ánimo de lucro que realice actividades de colaboración con la entidad citada que hayan sido declarados de interés municipal por el órgano competente del mismo.

Asimismo, gozarán de exención los montes y demás bienes inmuebles, sobre los que recaiga un aprovechamiento de la comunidad y los montes vecinales en mano común.

c) Los montes poblados con especies de crecimiento lento de titularidad pública o privada.

Esta exención se refiere a especies forestales de crecimiento lento, conforme al nomenclator de especies del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava, cuyo principal aprovechamiento sea la madera, y aquella parte del monte poblada por las mismas, siempre y cuando la densidad del arbolado sea la propia o normal de la especie de que se trate.

Asimismo, los montes no contemplados en el párrafo anterior, en cuanto a la parte repoblada de las fincas en que las Corporaciones, Entidades y particulares realicen repoblaciones forestales, y también los tramos en regeneración de masas arboladas sujetas a proyectos de ordenación o planes técnicos aprobados por la Administración forestal. La exención prevista en este párrafo tendrá una duración de quince años, contados a partir de período impositivo siguiente a aquél en que se realice su solicitud.

d) Los de la Iglesia Católica, en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado español y la Santa Sede sobre asuntos económicos fechado el 3 de enero de 1979.

e) Los de las Asociaciones confesionales no católicas legalmente reconocidas, en los términos que resulten de las relaciones de cooperación a que se refiere el artículo 16.3 de la Constitución Española, en los términos del correspondiente acuerdo.

f) Los de la Cruz Roja y otras Entidades asimilables que reglamentariamente se determinen.

g) Los de Gobiernos extranjeros destinados a su representación diplomática o consular, o a sus organismos oficiales, a condición de reciprocidad o conforme a los Convenios Internacionales en vigor.

h) Los de aquellos Organismos o Entidades a los que sea de aplicación la exención en virtud de Convenios Internacionales en vigor.

i) Los terrenos ocupados por las líneas de ferrocarriles y los edificios enclavados en los mismos terrenos, que estén dedicados a estaciones, almacenes o cualquier otro servicio indispensable para la explotación de dichas líneas.

No están exentos, por consiguiente, los establecimientos de hostelería, espectáculos, comerciales y de esparcimiento, las casas destinadas a viviendas de los empleados, las oficinas de la Dirección ni las instalaciones fabriles.

j) Los bienes inmuebles que tengan la condición de monumento a que se refiere la letra a) del apartado 2, del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención alcanzará tanto a los bienes culturales calificados como inventariados, siempre que se reúnan los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio.

Igualmente estarán exentos los bienes inmuebles que formen parte de un conjunto monumental a que se refiere la letra b) del apartado 2 del artículo 2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco. Esta exención sólo alcanzará a los inmuebles, calificados o inventariados, que reuniendo los requisitos que determina la citada Ley 7/1990, de 3 de julio, estén incluidos dentro del régimen de protección especial.

k) Los bienes de naturaleza urbana cuya base imponible sea inferior a 601,01 euros, así como los de naturaleza rústica, cuando para cada sujeto pasivo la base imponible correspondiente a la totalidad de sus bienes rústicos sitos en el municipio sea inferior a 1.202,02 euros, o a las cantidades que resulten de la actualización de los anteriores límites por Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava.

l) Hezkuntza itunaren erregimen peko ikastetxe publikoak, itun osoa edo partziala izaten jarraitzen duten bitartean.

IV. SUBJEKTU PASIBOA

7. artikulua.

1.- Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluak aipatzen dituen Entitateak, kasu hauetan badaude:

a) Zergapeko ondasun higiezinen jabeak badira eta ondasunek ez badute usufruktu edo azalera-eskubide errealik edo administrazio kontzesio baten pean ez badaude.

b) Zergapeko ondasun higiezinen gainean usufruktu eskubide erreala duten titularrak badira.

c) Zergapeko ondasun higiezinen gainean azalera eskubide erreala duten titularrak badira.

d) Zergapeko ondasun higiezinen gainean edo horiei atxikitako zerbitzu publikoen gainean administrazio-kontzesioa duten titularrak badira.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, subjektu pasiboak zerga beste bati ordainarazi ahalko dio, zuzenbide erkidearen arauekin bat etorriz.

V. ZERGA-OINARRIA

8. artikulua.

1.- Ondasun higiezinen balioak osatuko du zerga-oinarria.

2.- Zerga-oinarria zehazteko, ondasun higiezinen balio gisa horien katastro-balioa hartuko da; katastro-balioa ondasun higiezinen merkatu-balioa erreferentziatzat hartuta finkatuko da, eta ezin izango da merkatu-balio hori gainditu.

9. artikulua.

1.-Hiri-izaerako ondasun higiezinen katastro-balioa lurzoruaren eta eraikinen balioak osatuko dute.

2.- Lurzoruaren balioa kalkulatzeko, bertan eragina izango duten hirigintza-egoerak hartuko dira kontuan.

3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintza eta eraikuntza baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzinatasuna eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore hartuko da kontuan.

10. artikulua.

1.- Landa-izaerako ondasunen katastro-balioa lurraren eta eraikuntzen balioak osatuko dute.

2.- Landa-izaerako lurren balioa honelaxe kalkulatuko da: arautegian ezarriko den interesa zein lurren errenta erreal edo potentzialak kapitalizatuz, lurrak produkziorako, labore desberdinetarako edo aprobetxamendurako duen gaitasunaren arabera eta lur horien katastro-ezaugarriei jarraiki.

Aipatu errentak kalkulatzeko, nekazaritzarako ezaugarri homogeneoak dituzten zona edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo partzuergoak aztertuz lortutako datuak har daitezke kontuan.

Paragrafo honen ondorioetarako, halaber, landa-izaerako lurretan egindako hobekuntzak, zeinak haren balioaren zati bereizezina osatzen duten, eta, hala badagokio, ustiatzen hasi aurretik igarotako urteak hartuko dira kontuan. Baso-produkziorako erabiltzen diren lurrak izanez gero, landaketa garaia, zuhaitzen egoera eta aprobetxamendu-zikloa hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, aprobetxamendu handiagoa bultzatuko duten ohiko produkzioen bitartekoen erabilera hartuko da kontuan; ez, ordea, ohiz kanpoko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustiapenaren izaera edo udalerriaren ezaugarriak direla medio zaila gertatzen bada errenta errealak edo potentzialak ezagutzea, ondasunen katastro-balioa kalkulatu ahal izango da, hobekuntza iraunkorrak eta landaketak barne, nekazaritzako faktore tekniko eta ekonomikoak kontuan izanik, bai eta eragina duten beste egoera batzuk.

3.- Landa-eraikuntzen balioa aurreko artikuluaren 3. paragrafoan jasotako arauak aplikatuz kalkulatuko da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

11. artikulua.- Aipatu katastro-balioak dagozkien Higiezinen Katastroetan dauden datuak kontuan hartuta finkatuko dira. Kasuen

l) Los centros docentes privados acogidos al régimen de conciertos educativos, en tanto mantengan su condición de centros total o parcialmente concertados.

IV. SUJETO PASIVO

Artículo 7.

1.- Son sujetos pasivos de este Impuesto las personas físicas y jurídicas, y las Entidades a que se refiere el artículo 33 de la Norma Foral General Tributaria de Álava que sean:

